

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA UDAL HARREMANEN SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekainaren 1ean hartutako erabakiaren laburpena: Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan 2018an egiten diren obrak finantzatzera zuzendutako diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS (identifikatzailea): 403458

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeek jaso ahal izango dituzte diru-laguntza hauek.

Bigarrena. Helburua

Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan 2018an egiten diren eraberritze obrek sortzen dituzten gastuei aurre egiten laguntzea da deialdiaren xedea, obra horiek ekipamenduen egoera hobetzeko, oinarrizko hornidura jartzeko nahiz eraikinak Irigarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea eta hori garatzen duen 68/2000 Dekretura moldatzeko egiten direlarik ere.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekainaren 1ean egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 20.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

30 egun natural laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 1a

Alkatetzaren eta Udal Harremanen Saileko zuzendaria
BLANCA GUINEA ASTOBIZA